# AUTOEBALUAZIOA

## III. MODULUA: SENDAGAIAK ADMINISTRATZEKO BIDE PARENTERALAK

1. Sendagaiak administratzeko bide parenteralak:

a) Gaixoa konorterik gabe dagoenean edo ezin duenean irentsi erabiltzen dira
b) Aho-bidetik xurgatzen ez diren farmakoen kasuan edo xurgatu ahurretik galera handiak dituzten farmakoen kasuan erabiltzen dira
c) Erantzun azkarra edo urgentea behar denean erabiltzen dira
d) Erantzun guztiak zuzenak dira

2. Sendagaiak administratzeko bide parenteralak:

a) Odol-hodiz kanpoko bide parenteralak erabiltzen direnean farmakoek xurgapen prozesuak jasaten dituzte
b) Odol-hodiz kanpoko bide parenteralak erabiltzen direnean ez dira metakin parenteralak sortu behar
c) Bide intraperitonealak beti gibeleko lehen iragaite efektua ekiditen du
d) Erantzun guztiak zuzenak dira

3. Prestakin parenteralak

a) Exijentzia teknologiko handiak dituzte
b) Perfunditzeko prestakin injektagarriak bolumen handikoak dira
c) Hauen barruan gelak eta inplanteak ditugu
d) Erantzun guztiak zuzenak dira